

# EUSKOTAR UMEEN ALDEZ

Euli baten edestia. (Euliak berak edestuta.)

(Julene Azpeitia'ren eungarren urtea beteten dan onetan, bere omen eta oroiz 1933 urtean "Kirikiño" saria irabazitako lan au agertzen dugu).

• *Orïlean erailtzen dan euliak bagï-  
Jean bi anei gutxitu* • *Gaztelar esaera.*

Iñork ikusiko ez zuan ařautza txiki-txiki bat nintzan ni lenengoz.

Okoïlu bateko zikinkerien gaïnean ipiñi ninduan nere amak beste ařautza askorekin batean.

Egun batzuek gerotxoago erten nintzan ařautzatik.

Aar zuri, txiki-txiki bat nintzan orduan.

Aste betean, neu nengoan zikinkeria yanda bizi izan nintzan. ¡Yaio-tzean yanari ugaria ta ona euki nezan arduratu bai zan nere ama !

Yan da yan, azi ta azi, ordu gutxiren bařuan erten zidaten egoak eta eulia izatera eldu nintzan.

Geroztik yoan etofi aundiak eta asko egin ditut. ¡Eta nik egin ditu-dan lanak eta eraman-ekafiak!

Zuek ikusi ez ařen, anketan ïle me-meak ditut eta ïle oiekaz edozein gaitzen aziak batu ta eramaten ditut. Egoetan ere eraman nezake gaitza.

Zuek ez dezute siñistuko, ¡Ez ba, txikia bai-naiz ! baiña nere gaïnean 6.000.000 azi eraman neizke.

¿ Zer azi mueta ?

Gaitz guztien aziak, napařerienak, biriketako gaitzenak, gornienak, ti-puzenak eta abar.

Udan ume asko gaixotu ta iltzen dituan gaitz baten azia ere beti neurekin erabili oi-det, eta umea lo dagonean bere ezpain eta suduřean ibilketak egiten ditut, baita ere umeak aoan erabiltzen duan txupetean, nai aïña mikrobio utziaz.

Zikinkeri guztietan ibiltzea da nere atsegiñik aundiena. ¡Zikinkerien gaïnean yaioa naiz ba !

Ez naiz ordea zikinkerietan bakařik ibiltzen. Baita ere okela, ařai, gaztae, esne, opïl eta onelako gauza gozoetan.

Zenbait zartxoa naiz, ez naiz ba aurten yaioa, igaz baizik ; negu osoa sukaldeko epeletan igaro dedalako nago bizirik.

Nere ařetikoen beřirik ez det, baiña yakintsu batek diona egia ba'da, uda baten 6.000.000 ondorengo utzi neizke. Ez dago beraz gure

abenda amaituko dan bildurik, neguan bat edo beste bizirik gelditzen ba'gera.

Luraren gairietik gure abenda kendu nai ba'dezute, guk arautzak ipintzen ditugun lekuak, okoiloak, zakar-piloak egoten diran bazterak, arandegiak eta abar garbi euki, zikinkerik guztiak ere, ta kare bizia bota. ugari : ¡Kare biziak iltzen bai ditu ba gure arautzak !

Baiña, etxeakoandre batzuek oso maite gaituzte. ¡Maite ez ba'ginduzkete, ez lituzkie euli-k.....z zikindutako gauzik dendetan erosiko !

Gaur goizean bildur ikaragafia igaroa naiz. Esnetan ia-ia ito nintzan. Il bear dedala etsita nagoalarik, etofi da etxeakoandrea ta poliki-poliki atera nau. Gero, nik ainbeste mikrobio utzitako esneaz eman dio bere umetxoari biberioa.

Umea gaixotzen ba'da, ez du ama arek asko usteko zeinek gaixotu dion bere biotzeko semetxo kutuna. Tiputza etortzen ba'zaio,—« Ene, gu ez gera ba tiputzik dagoan etxean izan »—esango du.

Nik erantzun nezaioke—« Baiña esnetara erori baiño len, tipusdun gaixo baten ogearen azpian zegoan ontzi berarizkoan ibilita nengoan ordea ».

Lengo uda baten, Washington urian ¡¡guri egin ziguten guda gogora!!

Leku guztietan gu arapatzeko sareak zeuden. Lan gabe zeuden langile guztiak saregiñan ipiñi zituzten. Izpar-ingi batek 75.000 sare eman zituan. Eta txadon, etxe, arandegi, arategi, denda, bultzi, tximist-burdi, txaide, enparantza ta leku guztietan, dana zan gu arapatzeko sarea.

Gure azkena orduantxe izango zan, baldiñ an bezela beste leku guztietan, guda egin ba'ziguten.

Baiña ¡ bai zera !

Gaur baiño naska aundiagorik artzen ez ba'digute. ¡ Gizaldi batzuetarako ba gera !



Julene Azpeitia  
"Arritokieta"